

HAURRAK. 3.000 lagunetik gora elkartu dira New Yorken testu bateratua hitzartzeko asmoz

Iraganeko akats eta gabeziak onartuz hasi dute umeei buruzko goi bilera


«Bete gabeko promesen zerrenda aztertu behar dugu», onartu du NBEko idazkari nagusiak

Agentziak | NEW YORK

Atzo New Yorken Haurrei Buruzko Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Biltzar Nagusia hasi zen, propio adingabeen behar eta nekeei buruz jarduteko goi bilera handia. Mundu zabaleko agintari eta ordezkariak elkartu dira han, 3.000 lagunetik gora. Datozen urteetan umeen geroa hobetzeko irizpideak zeintzuk izan behar duten hitzartzen saiatuko dira. Atzo, biltzarren hasieran, hitz gozoak baino porrotari buruzkoak izan ziren nagusi. «Guk, helduok, bete gabeko promesen zerrenda aztertu behar dugu», esan zuen NBEko idazkari nagusi Kofi Annanek. Kritiko.

Izan ere, 1990. urtean egin zen umeen egoerari buruzko aurreko goi bilera, eta orduko hartan ezarri ziren helburu asko ez dira konplitu oraindik. Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Funtz Unicef-ek egunotan zabalduko datuen arabera, egoera zaila da. 2.100 milioi ume bizi dira mundu zabalean. Laurdenak pobrezian bizi dira; eta asko —hamabitik bat— bost urte bete aurretik hiltzen dira.

Atzo, bilkuraren hasieran egoera gordin hori konpontzen saiatzeko eskatu zuten bi neskatok munduko umeen izenean. «Umeen ahotsak ez dira entzuten. Har gaitzazue aintzakoizat», eskatu zuen Gabriela Arrietan boliviarrak. «Konponitzazue gatazkak elkarrizketa bidez, bortxakeria erabili gabe». Alboan Audrey Cheynut



STEPHEN CHERNIN / AP

Kofi Annan, atzo, goi bilerako hasiera ekitaldian.

neskatxa monakoarra izan zuen. Milioika ahots estaliren izenean.

Osasun arazoei tarte berezia

Atzo bilkuran hizpide garrantzitsua izan ziren haurren osasun arazoak. Goseak urtean 11 milioi ume hiltzen dituela gogoratu zen, eta zenbait eritasunek latz erasaten dituztela neska eta mutikoak, batez ere, he-

rrialderik behartsuenetan. Besteak beste beheakoa, pneumonia, malaria eta elgorria arrunt hedatuta daude. Milioi bat ume hiltzen ditu urtero bakoitzak.

Osasun arazoei eman dakizkien balizko konponbideak ere ahotan hartu ziren. Besteak beste, 2005. urterako iodo eskasia gainditzeko programa aurkeztu zuten. Izan ere, iodoa mikronutritzaile garrantzitsua

da —tiroidesaren funtzionamendu onerako ezinbestekoa— baina urria zenbait herrialde behartsutako elikaduran urria. Horrek, Unicef-en arabera, orotariko osasun arazoak eragin ohi ditu umeen artean, eta aurre egin behar zaio arazoari.

Gaur eta bihar bilkuran jarraituko dute mundu zabaleko ordezkariak. Irizpide bateratuak hitzartzeko.

GENETIKA

Botikak egiteko aski erabilia den bakterio baten genomaren mapa osoa egin dute

Erredakzioa | DONOSTIA

Botikak egiteko aski erabilia da gaur egun *Stropmyces coelicolor* bakterioa. Antibiotikoak eta minbiziaren kontrako sendagaiak egiteko erabiltzen da. Atzo Norwicheko John Innes Ikerketa Zentroko (Erresuma Batua) ikertzaileek bakterio horren mapa genetiko aurkeztu zuten, osorik dekodetuta. Arrunt lorpen garrantzitsua da, botika aitzindariak egiteko giltza berriak aurki baititzaizkete mapan ikertzaileek.

Bakterioak 7.825 gene dituela azaldu dute, eta 8,7 milioi sekuentzia pare. Aurkikuntzaren berri *Nature* aldizkarian eman dute. Gustura. Egun, antibiotikoen arazo handia izaten da gaitzak horiekin erresistente bihurtzen direla. Bakterioaren gene guztien mapa aurrez aurre izanik, ordea, arazo hori gainditzeko giltzak aurkitzea espero dute.

OSASUNA

Menopausiaren osteko urteetako zoriontasuna nabarmendu dute emakumeek

Erredakzioa | DONOSTIA

Erresuma Batuan inkesta bat —Jubilee Report— egin diete menopausia igaroa duten emakumeei. Arrunt baikor azaldu dira gehienak. %76k beren osasuna hobea dela esan dute, eta %65ek, berriaz, zoriontsuagoak direla lehen baino.

Inkestaren egileek datuen baikortasuna nabarmendu dute. Izan ere, batez besteko adinak gora egin ahala, gero eta ugariagoak dira menopausia igaro ostean urte ugari bizi diren emakumeak. «Beste 25-30 urte bizi daitezke emakume asko eta asko», gogoratu du Bristol Royal Erizaintza Zentroko aditu Annie Evanssek. Horregatik, urte horietako guztietako osasuna ondo zaindu behar dela nabarmendu du.

ARGI-ITZALAK

Lorpenak, nahiak eta porrotak

1990. urtean egin zen lehen aldiz haurren eskubideen aldeko biltzar handia: Umeen aldeko Munduko goi bilera. 27 xede ezarri ziren, hamar urteren buruan lortzeko. Hona hemen zertan diren egun asmo handi haietako zenbait;

LORPEN HANDIAK

POLIOMIELITISA ASKO MURRIZTU DA. 1988. urtean 350.000 lagun erasan zituen gaitzak, 2000an 3.500 bakarrik, eta behera eta behera ari da erien kopurua.

GERO ETA UME GUTXIAGO HILTZEN DITU BEHERAKOAK. Hamar urtean erdira jaitsi da beheakoa ondoz hildako haurren kopurua, 1990an 3 milioi hil ziren, 2000an 1,5.

ERDIPURDIKOAK

UME GUTXIAGO HILTZEN DIRA, BAINA ASKO. %33 murriztu nahi zen umeen hilkortasun tasa; baina lortutako murrizketa askoz ere txikiagoa izan da, %11koa.

GOSEA GURA BAINO GUTXIAGO URRITU DA. Gose diren 5 urtetik beherako umeen kopurua erdira jaitsi nahi zen. %15 baino ez da murriztu.

ESKOLAK ASKORENTZAT ARROTZA IZATEN JARRAITZEN DU. Hamar urtean %80tik %82ra

igo da eskolan matrikulatuta dauden haur txikien kopurua. Gura baino igoera txikiagoa da. 120 milioi ume ez dira eskolara joaten.

PORROTAK

ERITASUNEN KONTRAKO IMMUNIZAZIOAN ALDAKETARIK EZ. Ume orok gaixotasunen kontrako immunizazio neurriak jaso behar dituela ebatzi zen orain hamar urte. Guztiengana ez dira heldu oraindik, ordea.

ERDITZEA, ZEIN ARRISKUTSUA. Erdira jaitsi nahi zen erditzearekin edo haurdunaldiarekin lotutako osasun arazoaren ondorioz hildako emakumeen kopurua. Ez da lortu. 515.000 emakume hiltzen dira oraindik urtean ama izateko bidean.